



Itsasondoko gazteek badute zer esana!

Elkarrizketa: Dani Benitez
Legaldi erdiaren balorazioa
Parkearen irekiera



Oporren atarian dator zuen etxeetara Itsasondo 2.0 aldizkariaren 49. zenbakia. Aurten, inoiz baino gehiago, hondartzara edo kosta ertzeko brisa leunean izango ditugu pentsamenduak eta nahiak, edo mendi tontor dotoreetan eta basoetako zuhaitzen gerizpean, edo herrirako panpoxetan, edo hiri handiren edo lurralde exotikoren batean; edo, zergatik ez, bizitako guztiak bizi ondoren, ez da batere plan txarra Itsasondoko eta inguruez disfrutatzea ere. Zure plana

dena delakoa izanda ere, edota planik ez baduzu ere, espero dugu momentu entretenigarria pasako duzula herriko aldizkaria irakurtzen.

Beti bezala, zenbaki honetako atalen errepaso egingo dugu, ea zure intereseko edukiak topatzen dituzun.

Sarritan uste dugu denbora azkar pasatzen dela, eta ea zer iritzi duen horretan lñaki Aizpuru alkateak, Itsasondoko alkatetzara hartu zuenetik bi urte pasa diren honetan; legegaldaren erdia igarota, elkarrizketa egin diogu, balorazioa egiteko eta bi urte

hauetan egindakoak eta bizi izandakoak kontatzeko.

Elkarrizketa luzea Dani Benitezi egin diogu; Itsasondoko bizi den ordiziaria da, eta sukaldari bikaina. Hainbat kontu kontatu dizkigu elkarrizketan. Orain arte Itsasondoko ez zuen jende askok ezagutuko, baina hemendik aurrera fitxatuta izango dugu.

Itsasondoko haur eta gazteak ez daude geldirik egoteko. Kazetari lanetan jarri ditugu, eta elkarrizketa egin diote Itsasondoko dendan hainbeste denboran lagun izan duten Lurdesi. Ziur informazio interesgarri ugari ateratu dituela.

Bestetik, Itsasondoko haurrekin parte-hartze prozesu bat egin zen, herrian nolako parkea nahi zuten erabaki zezaten. Prozesu horren ondoren, amaitu da parkearen lehen fasea amaituta, eta, haurrek beraiek eskatu bezala, inaugurazioa egin da, zinta mozketa eta guzti. Horrelakoetan esaten den bezala, osasunarekin urratu!

Beste parte-hartze prozesu bat ere izan dugu: nerabeekin egin dena, helburua izan da haien beharrik eta nahiak zein diren jakitea, eskaintza ahalik eta gehien egokitzeko haien beharretara.

Gainontzean, ohiko atalak ditugu zenbaki honetan: udaleko berriak, hemeroteca, liburutegia, informatika... Konturatu ez bazara ere, 50. zenbakia atarian gaude, eta ea ordurako zeozer berezia egiteko moduan garen. Bitartean, pozik bizi!

Aurkibidea

- 03-04 **Udaleko berriak**
- 05 **Haurreskola**
- 06 **Eskola**
- 07 **Guraso elkarteak**
- 08-10 **Udal gobernua**
- 11-13 **Gazteria**
- 14-18 **Elkarrizketa:** Dani Benitez
- 19 **Natura**
- 20 **Elkarrizketa:** Xabi Aztita
- 21 **Parke berria**
- 22-25 **Hemeroteca**
- 26 **Liburutegi txokoa**
- 27 **Errezeta / Euskararen atala**
- 28 **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doina: Loreak udan ihintza bezala

Berrogei eta bederatzira heldu da Aldizkaria uda giroko gaiak hartuta itzaletatik argira, besteak beste oporraldia hizketa gai nagusi da eta Lurdesen atariraino txikiak heldu dira.

Udalak, berriz, legegaldia hartu du bere begitan epe erdiko balorapena jarriaz denen argitan, ta batez ere, erreparatuz nerabeen irrikitan prozesuaren ordezkapena lantzeko molde berritan,

Zorionean parke berria iada osatu xamarrik, irekiera bidean dator ez bada okerrik lehen jolasak presta ditzagun ez umeentzat bakarrik ez dadin falta irrifar eta malko gabeko negarrik.

Elkarrizketak sortzen du sarrirako ustekabezko harridura Dani Benitez sukaldariak badu zerbaiten itxura, osagai eta ontziak nonahi ta sua ere piztu da zapore onez buka dezagun osatu degun bilkura.

Udaleko berriak

2021eko bigarren hiruhilekoan, udalean honako hauek izan ditugu:


UDALBATZAK

Maiatzak 18an egindako osoko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:

- Onartu da Itsasondoko baserriak Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren urarekin hornitzeko proiektua, eta tramitean jarri da obrak kontratatzeko espedientea. Proposamenak aurkezteko epean lau enpresak aurkeztu dituzte eskaintzak, eta orain proposamenak azterte fasean daude.

Hurrengo hilabetean obrak esleitu eta lanak hasiko dira.

- Itsasondoko ur hornidura zerbitzuaren kudeaketa Ur Kontsorzioaren esku uztea erabaki zen, eta kudeaketa berriari martxan izango da urriaren 1etik aurrera. Beraz, aurrerantzean uraren fakturak Ur Kontsorziotik iritsiko zaizkizue, orain arte bezala hiru hilabeteko epeetan.
- 2021eko aurrekontuan egin nahi diren inbertsioak finantzatzeko, mailegu bat sinatzeko espedientea tramitatu zen, eta kontratua Kutxabankekin sinatuko da. 300.000 €ko zenbatekoa izango du, eta interes tasa Euribor + 0,41 izango da.
- Murumendin proiektu bat gauzatzen ari da udala: Natura Intereseko eremu eta korridoreko basoen egoera ekologikoa hobetzeko ekimenak. Proiektu hori gauzatzeko, lursail batzuk erostea planteatzen da, eta horretarako pleguak onartu ziren. Zenbat eskaintza aurkeztu dituzte jada, eta hilabete honetan ebatziko dira.
- Beste tramitazio bat ere egin zen: behin-behineko izaerarekin kontratatuta dauden garbiketako bi langileen lanpostuak finkotasunez betetzea. Lanpostuen eskaintza publikoa egitea onartu da; hurrengo hilabetean onartuko dira oinarriak, eta izena emateko epea irekiko da. Interesatuak udaletxean eskuratu ahal izango dute informazio gehiago, eta zabalduko da udaleko pantailan, webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere.
- 2021eko aurrekontuan bigarren kreditu aldaketa ere onartu zen, 66.124 €ko zenbatekoarekin.



Moziok

- Mozio bat onartu zen desadostasuna azaltzeko Gipuzkoako Itsasoko azpiestazioaren eta Nafarroako Castejon-Muruarte artean egin nahi dute goi tentsioko linearen aurka.

Beste batzuk

- Jolastokia berritzeko lanak uztaillaren 3an amaitu dira, eta parke berritua erabilgarri dago.
- Udaleku irekiak antolatu dira ekainaren 28tik uztaillaren 23ra. Hiru monitore kontratatu dira, hurrekin begirale lanetan aritzeko. 3-12 urte bitarteko 30 hurrek eman dute izena, eta hiru taldetan aritu dira.
- Amaitu dira Errota frontoiko komuna eta aldagela irisgarri egiteko obrak, eta aurreikuspena da egunero irekita egotea 09:00etatik 21:00etara.
- Erreziboen kobrantza exekuzio bidez. Udalak Foru Ogasunekin sinaturik duen hitzarmena jarraituz, hurrengo egunetan jakinaraziko dira 2021eko zirkulazio zergan ordaindu gabe geratutako erreziboak. Udalak kobratzen ez dituenak Foru Ogasunera bideratuko ditu, exekuzio bidez kobratzea lortu arte.
- Hilerriko nitxoetatik atera egingo dira 1999ko abenduaren 18tik 2004ko apirilaren 14ra bitartean lurperatutako gorpuzkiak; izan ere, hurrengo urteetako beharrei aurre egiteko, beharra ikusi da nitxoak husteko. Aldi berean, 25 urterako luzatu dira 2020an amaitutako hezur kaxen kontzesioak.



ALKATE DEKRETUAK

- Apirileko fakturen zerrenda: 7.861,08 €.
- Maiatzeko fakturen zerrenda: 19.149,80 €.
- Ekaineko fakturen zerrenda: 59.027,40 €.
- Udaletxeko kultur gunea eta lokalak erabiltzeko 12 eskaera izan dira.
- 2021ko lehen hiruhilekoko ur errolda onartu da: 18.265,90 €.
- 2021eko lehen lauhilekoko zaborren errolda: 16.146,22 €.
- 2021eko bigarren lauhilekoko zaborren errolda: 16.853,75 €.
- Obra baimenen zazpi espediente tramitatu dira.
- Gizarte larrietarako laguntzako 11 espediente onartu dira.
- Hirilurren balio gaineko 3 espediente tramitatu dira.
- Hilerrian kontzesioak emateko 3 espediente bideratu dira.
- Euskara ikastaroak egin dituzten bi bizilagunei laguntza ematea erabaki da.

DIRULAGUNTZAK

Eskatutakoak

- Haur, nerabe eta gazteen planak finantzatzeko.
- Eskola kirola finantzatzeko.
- Jarduera fisikoa, tipi tapa eta hirugarren adinekoen gimnasia programa finantzatzeko.
- Jaurlaritzari, liburutegietako deialdian, irakurketa sustatzeko eta funts berriak erosteko.

Jasotakoak

- Hezkuntza Sailak Herri Eskolan karpak jartzeko eskutako dirulaguntza onartu du: kostuaren aurreikuspena 21.500 € da, eta jasoko den laguntza, 19.300 €.
- Foru Aldundiak, Lurzoru urbanizaezinean behar diren babes neurriak ezartzeko plangintza eta ekintzak egiteko proiektua gauzatzeko 4.967,90 €.
- Euskararen erabilera soziala normalizatzeko ekintzak gauzatzeko 2.000 €.
- Auto-hornikuntza fotovoltaikoaren proiektuan egin behar den partaidetza proiektua finantzatzeko, 8.000 €.
- Errota frontoian instalatu nahi den auto-hornikuntza fotovoltaikoko proiektua finantzatzeko, Aldundiak 22.575,28 € eta Erein programan Jaurlaritzatik 25.928,87 €. Proiektuak 57.619,72 €ko zenbatekoa duenez, ia osotasunean dirulaguntzekin finantzatuko da.
- Herri bideetan konponketa lanak egiteko:
 - 2020an egin ziren Itsasaga eta Iraola aldeko herri bidean sortutako luiziak konpontzeko 14.268,99 €ko laguntza.
 - Saro eta Urkiako herri bideetan antzeman diren konpondu beharreko obrak finantzatzeko 14.937,14 €ko laguntza.■



Ikasturteari agurra

2020-2021 leko ikasturte amaiera iritsi da dagoeneko. Aurten, COVID-19a dela eta, ikasturte desberdina izan dugu.

Hainbat aldaketa ezarri behar izan ditugu egoera berri eta ezezagun honek bultzaturik: egokitzapen indibidualak egin behar izan ditugu pilaketak eragotzi nahian; gurasoen taldeko bileren ordezkari bakarkako bilerak egitera behartuta egon gara; guraso eta haurren goizeko harrera gela barruan egin beharrean haurreskola kanpoan egitea egokitu zaigu... eta beste hainbat aldaketa ere bai.

Beste urteetan, familiarentzako eskuragarriagoa eta parte-hartzaileagoa izan da haurreskola, sartzeko eta ateratzeko zuten askatasunagatik. Beti gustatu zaigu haurrek beren familia haurreskolako kide moduan sentitzea; baina, aurten, muga horiek asko baldintzatu dute guraso-hezitzaile harremana, baita haurrak etxetik haurreskolara egiten duen trantsizio momentua ere. Haurraren zaintzan eta heziketan gurasoekin bat lan egin behar dugu, haurraren garapena egokia izan dadin. Horretarako, ahal den erlazio estuena izan behar dugu familiarekin, konfiantzazko harremana sortuz. Guretzat garrantzitsua da etxean eta haurreskolan ahal den neurrian koordinazioa eta kooperazioa egotea, haurrak ez dezan nahasketa eta aldaketa handirik eduki, eta etxetik haurreskolarako trantsizioa ahal den samurrena izan dadin.

Haurrek, normalean, haurreskolara etortzen direnean, lehen kontaktuan begirada ona egiten diote: espazio erakargarria da haientzat, etxean ez dituzten hainbat material dauzkate esperimentatzeko, beren adineko beste haur batzuekin topo egiten dute... Ondo pasatuko duten leku bat bezala hartzen dute haurreskola. Hori bai, nahiago dute bertan gurasoak badaude. Beraz, ikasturte osoa pasatzen dugu haurrekin atxikimendu egokia sortzen, gurasoen falta suma ez dezaten.



Emozionalki eta fisikoki asko eskatzen duen lana da, baina badu bere konpentsazioa ere: haurrekin sortzen ditugun harremanak oso estuak dira, eta egunero jasotzen dugu haien irribarrea eta maitasuna. Bestalde, oso polita izaten da ikustea haur bakoitzak zenbat aurrerapauso ematen dituen bere garapenean eta autonomian, bere interesetatik abiatuta. Urtean zehar aldaketa ugari edukitzen dituzte, eta gaitasun gehiago lortzen joaten dira.

Eskerrik asko aurten etorri zareten haur eta guraso guztiei. Denon artean familia polita sortu dugu, aurtengo egoera ezohiko honi aurre eginez. Batzuekin hurrengo urtean topatuko gara, eta beste batzuekin bide berri bat hasiko dute. ■

Eskolatik ere agurra Lurdesi

2020-2021 ikasturtea berezia izan da oso, eta ez soilik COVID-19agatik. Hogei urtez jendea zaintzen, goizero ogia irribarre batekin saltzen eta herriko txikienei gozokiak ematen aritu ostean, Lurdesek bere zikloa amaitu du dendan.

Itsasondon jaioa da, Itsasondon hazia, eta Itsasondon bizi da. Hortaz, herriarekin ez ezik, eskolarekin ere lotura estua izan du txiki-txikitatik. Horregatik gonbidatu dute eskolara gure haurrek, elkarrizketatxo bat egiteko. Denda atzean ezagutu dugu beti, baina ba al dakigu zein diren bere zaletasunak?

Eskolak leku berean jarraitzen du, itxura aldetik ere badu garai bateko eskolaren antza, baina, hala-beharrez, bertako irakaslerian aldaketak izan dira. Jada ez daude Lurdes txikia zeneko irakasleak, berak gogoan dituen arren. Gelak ere aldatuak ikusi ditu, eta gustatu zaio bisita.



Non eta noiz jaio zinen?

Hemen, Itsasondon, 1972ko otsailaren 16an.

Non bizi izan zinen txikitatik?

Hemen, Itsasondon.

Zein dira zure zaletasunak?

Mendia asko gustatzen zait, baita eskulanak ere.

Non biziko zinateke Itsasondon biziko ez bazina?

Beste herri txiki batean.

Zenbat urte egon zara dendan lanean?

20 urte.

Dendan egon eta gero zer asmo dituzu?

Hilabete batzuk lasai hartu nahi ditut nire gustuko gauzak egiteko.

Itsasondo ez den beste herriren batean jarriko al zenuke denda?

Bai! Zergatik ez?

Zein da dendan gehien saldu duzun produktua?

Frutak eta barazkiak izan direla esango nuke.

Amets bat?

Familia osasuntsu izatea eta orain nagoen bezala jarraitzea.

Oporretarako leku bat?

Kostaldea asko gustatzen zait. Kantabria aldea gustuko dut, baita Asturias ere.

Gustuko animalia bat?

Zaldia.

Abesti talde bat?

Su ta gar, beti izan naiz fana.

Eta gustuko abesti bat?

Anje Duhalderen edozein.

Gustuko liburu bat?

Aspaldian ez dut libururik irakurri, baina beti gustatu izan zaizkit misteriozko liburuak, nobela beltzak. Agatha Christiren liburuak gustura irakurtzen nituen.

Gustuko kirolik?

Futbola.

Zein da zure kolore gustukoena?

Urdina.

Zein animalia edukiko zenuke etxean?

Etxean ez zaizkit gustatzen animaliak, baina kanpoan atsegin dut behiak eta zaldiak ikustea.

Zure janari gustukoena?

Txapiroak plantxan.

Espero dugu gustatu izana. Maitasun osoz egindako elkarrizketa bat izan da. ■



Ikasturte amaierako ekitaldia

Aurten ere, urteroko legez, ikasturte amaiera gainera etorri zaigu.

Ezohikoa ohiko bihurtzen ari den garai hauetan, urtea ez da batere xamurra izan inorentzat: talde burbuilak, maskarak, sarrera-irteerak, hidrogelaren erabilera...

Positibo kasu bakan batzuk izan badira ere eta horrek etxeratze batzuk ekarri baditu ere, ikasturte hasieran esan baligute ikasturtea joan den bezala joango zela, sinesten lanak izango genituen. Beraz, urtea ondo joan dela esateko moduan gaude.

Ekainaren 18an ez zen egin ahal izan ikasturte amaierako festa handirik. Hala ere, frontoian bildu ginen Urkipe eskolan azken urtea egin duten gure hamar gaztetxoei agur esateko.

Ohitura bilakatu da jada ikasleek, irakasleen eskutik, beren eskola ibilbideko argazki bilduma jasotzea.

Ikasleek, berriz, esker oneko hitzak izan zituzten irakasleentzat, aurrez grabatutako bideo batekin.

Bestalde, goizetako zaintzaz azken hamar urte hauetan arduratu den Josunek ere ondo merezitako tartetxoak izan zuten. Haurren eskutik, lore eta liburu eder bat jaso zituen.

Elkar eskertzeko festa umil bat izan zen. Agur esan diguten neska-mutiko horiei, berriz, esan nahi diegu horrelaxe segitzeko beren bidean, jator-jator. ■



Legealdi erdiko balorazioa

Bi urte igaro dira legealdia hasi zenetik eta udal gobernua balorazioa egin nahi izan du, Iñaki Aizpuru alkatearen adierazpenekin.



Frontaiko komun berriak.



Elordiko zelai erosketa.



2019ko ekainean hartu zenuen alkate kargua. Bi urte igaro berri dira. Zer-nolako balorazioa egiten duzu orain arte?

Hasieran, ilusioa gainezka eta agindutako gauzak egiteko indarra maila gorenean dagoen bitartean, agian ez, baina denbora asko pasa gabe konturatzen zara benetan zer behar dituzun. Karguak berarekin duen konpromisoari aurre egiteko modu bakarra da inguruko laguntza izatea, eta, alde horretatik, ezin ukatu zorte handia izaten ari naizela. Izan ere, laguntza aparta jasotzen ari naiz udaleko langile eta udalbatzako kideen aldetik, baita aldameneko herrietan ditugun alkate eta zinegotzien aldetik ere.

Elkarlan horri esker, poliki-poliki, denon artean herria moldatzen ari gara orainak eta geroak eskatzen dizkiguten beharretara. Garai kezagarria tokatu zaigu. Jakina da aro bakoitzak bereak izaten dituela, baina oraino ez ditu erroka makalak ekarri: arazoak mundu mailan gogorak izanik, gurea bezalako herri txiki-txikiaraino iristen dira. Horregatik, mantso baina gelditu gabe ari gara, edo saiatzen gara behintzat, betiere pentsamendua etorkizunean dugula.

Tematze horri esker, eskola berria izango dugu bi urte barru. Baina, kontuz, hamar urte pasa baitira orduko udalak eskola berriaren eskaera formala egin zuenetik, eta ordutik hona ahalegin ugari egin behar izan dira eskola berri hori errealitate bihurtzeko. Ahalegin horrekin hasi zirenak ez zuten etsi, eta horri esker lortu dugu orain eskola berria. Eredu ederrak ditugu ahalegin berrietarako ere.

Kargua hartu, eta pandemia iritsi. Ez dira garai errazak izan. Nola kudeatu duzue egoera?

Oraingo honetan, ezagutzen ez genituen hitzak ere etxeratzea tokatu zaigu: koronabirusa eta haren ingurukoak. Hasieran, ezagutza falta zen nagusi, eta ezjakintasunaren beldurra zabaldua zegoen. Eta ez genuen batere argi nola jokatu behar zen. Hala ere, berehala eratu ziren gizarte sareak herrian eta eskualde osoan, behar zutenei laguntza eskaintzeko, maskarak egiteko eta banatzeko, eta behar guztiei erantzuteko. Aipatzekoa da, gainera, diru-sarreraren murrizketa jasan edo lanordua luzatu zaizkien aldetik ere ulermena eta elkartasuna besterik ez dugula jaso.

Atzera begiratzen badugu, hildakoak ere izan ditugu gure artean, eta badira gaizki pasa duten asko eta asko, baina, panorama argitzera doala dirudien honetan, garbi geratu zaigu solidaritatea ederra eta ezinbestekoa dela. Horrekin batera, argi geratu da osasungintzako eta gizarteratzeko azpiegitura publikoak eutsi beharreko baliabidea direla, herriko kontsultategi txikienetatik hasi eta txertoa jartzeko egitura erraldoietaraino.

Zein izan dira oztopo edo arazo nagusiak?

Finantzaketa eredia da udal hau bezalako tokiko administrazio txikiak duten arazo nagusienetakoa. Aldundiak banatzen duenak hortxe-hortxe ematen du gutxieneko egitura bat mantentzeko. Udalak aukera du zerga gutxi batzuk biltzeko. Hortik aurrera, dirulaguntza deialdi-tara mugatzen da aukera guztia: partaidetza sustatzeko, kultura ekintzetarako, energia berri-tagarrietarako, ingurumenerako, irisgarritasuna hobetzeko, baserrietako bide eta azpiegiturak hobetzeko, edo eskola berritzeko.



Parke berriaren irrikiera.




Konposguneko aldaketa.

Eta Itsasondon lortu ditugun dirulaguntza batzuk bakarrik dira aipatutako horiek. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak udalekin dituzten harreman nagusiak dirulaguntza deialdien bidez gauzaten dira, eta harreman horrek finantzaketaren egonkortasunik eza du berekin. Gainera, proiektuak prestatu eta bideratzea lan karga handia da giza baliabide mugatuak dituzten udalentsat. Eta haiek erabakitzen dituzten mugetara errenditu beharrak ez du beti bat egiten udalen lehen tasunekin. Baina esan beharrekoak esanda, eskertzekoa da benetan bi administrazio horiek ematen ari zaizkigun laguntza, euskarri horrekin ari baikara herriko obra handienak egiten.




Orain arte egindakoak edo iraunkorrak

- Mendiko lurren publikotasuna bermatzeko ekimenak.
- Urkiko aterpea moldatzea.
- Konpost-guneetan eta konpostarekin egindako lanak.
- Parke berria.
- Komun publikoak.
- Elordiko zelaiaren erosketa.
- Basoen erosketa eta parke mikologikoa eratzea.
- Instalazio fotovoltaikoa udaletxeko teilatuan.



Bigarren erdirako daudenak

- Baserrietara sareko ura eramatea, Artetxen goialdean biltegi berria eraikiz.
- Eskola berria (2023-2024 ikasturterako).
- Itsasondoko Herri Kooperatiba eratu, Tokiko Energia Komunitatea barne.
- Janari denda berria.
- Frontoiko teilatuan instalazio fotovoltaiko amankomuna.
- Ibarre atzealdean etxebizitza berriak eraikitzeke plan berezia.
- Elordiko zelairako industria plan berezia.
- Trenbideko pasabidea kentzeko lanak.
- Oinherri hezkuntza ekimena.
- Webgune berria.
- Itsasklik aplikazioa.



Zer-nolakoa izan da herritarren erantzuna eta jarrera?

Xexatzeko arrazoi gehiegirik ez badugu ere, nire ustez parte-hartzea gehiago zabaldu eta indartu beharrean gaude. Erosotasunaren bandera asko astintzen dugu, eta behar baino gehiagotan nagitasuna gailentzen zaigu erakundeetan murgiltzeko garaian. Kontrakoa erakusten saiatuagatik ere, oraindik distantzia handiegia dago herritarren eta instituzioen artean, baita gertukoenetan ere.

Harreman horietan ahaleginak egin behar ditugu instituzioen aldetik ere, eta horretan ari gara. Aurki izango gara zehatzago azaltzeko moduan, baina Itsasondoko Herri Kooperatiba eratu nahi dugu, herriko gobernantza eta horretarako dauden baliabideak denon artean banatzeko eta denon artean lantzeko.

Legealdia amaitzeko beste bi urte geratzen dira. Zein dira udal taldearen asmoak edo lehentasunak?

Nahiko lan izango dugu hasi ditugunak errematatzeko. Eskola berriarena aipatu dugu, baina hirigintza arloan irisgarritasun plan berria eta beste bi ekimen ere martxan ditugu: Beko kale eta Jasoren artean dagoen Elordiko zelaia aprobetxatzeko bata, eta Ibarre atzetik Toki Goxo bitartean dauden lursailetan etxe berriak eraikitzeko bestea. Industria gunea sendotzeko aukera emango digu aurrenekoak, eta mota desberdinetako etxebizitzaren eskaintza izateko besteak. Horiekin batera, sareko ura baserrietara eramateko obrak ere aurten egingo ditugu, eta mendietako kudeaketa publikoaren proiektuak indarrean jarraitzen du.

Eta hori lurralde arloan bakarrik. Gizartearenean, besteak beste, orain gutxi sinatu nuen hitzarmen formalak udala Oinherri herri hezitzaileen sarean sartzeko. Era horretan, gazteria-hezkuntza forotik egindako hausnarketatik ateratako hiru printzipioen baitan lan egingo du Itsasondoko Udalak: Herri identitatea, Guztion herria eta Herritik herriarentzat. Oinherri herri hezitzaile sareak zazpi printzipio ditu, eta zehazten joango gara printzipio horiek modu komunean nola landu ditzakegun. Irailean, kurtsio hasierarekin batera egingo da aurkezpen nagusia. Gehiago jakin nahi duenak Itsasondoko webgunean aurkituko ditu bai hitzarmena, bai Oinherri ekimenari buruzko informazioa.

Amaitzeko, ezer esan nahiko zenieke herritarrei?

Animatzeko udala barrutik ezagutzera, erraztasun guztiak jarriko dizkiegula horretarako, eta parte hartzeak momentu pozgarriak besterik ez dituela ematen. Bromaz aparte, bakoitzaren bizitzan eragin handia duen erakunde dela udala, eta, beraz, denon artean moldatu beharrekoa. Azken finean, komeni zaigula batzuek eta gauza batzuk egiten dituzten leku itxi batetik, denon artean egingo dugun plaza publikora pasatzea. ■



Itsasondoko nerabeek badute zer esana!

lazko urtea berezi joan zen, eta aurtengoa ere martxa horretan doakigu. Haurrek eta nerabeek zuzenean jasan dituzte pandemia honen eraginak, eta haiek jasan dute hasieratik muga gehien.


Nabaria izan da haiekin lanketa bat egiteko beharra, eta gazteria forotik hori bideratu nahi izan da: herri mailan egin zen hausnarketa haiekin partekatzeaz gain, haien hitzari garrantzia eman nahi izan diogu, eta erdigunean jarri.

Parte-hartze prozesu hori herriko nerabeekin egin da, esan bezala, gazteria lantaldetik eratorritako hausnarketan garatu ziren printzipioak haiekin lantzeko, berenganatzeko eta barneratzeko. Printzipio hauek izan dira ardatz parte-hartze prozesuan:

- Herri identitatea
- Guztion herria
- Herritik herriarentzat

Parte-hartze prozesuak helburua zehatz hauek izan ditu:

1. Herriko nerabeekin herri identitatea zer den hausnartzea.
2. Herriak eskaintzen dienari buruz hausnartzea.
3. Herriak duen kultura aniztasunaz jabetzea eta ondare gisa ulertzea.
4. Herriak eskatzen dienari buruz hausnartzea.
5. Haien hitzari garrantzia ematea.
6. Autonomia pertsonalaren garapenean laguntzea.
7. Parte-hartzean trebatzea.
8. Herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharren inguruan hausnartzea.
9. Ondorioztatutakoen inguruan konpromisoak hartzea.



SAIOAK ETA SAIOETAN EGIN DIREN DINAMIKAK

1. SAIOA

HERRI IDENTITATEA

Saioarekin hasteko, bakoitzak idatzi du herri identitateari buruz zer bururatzen zaien. Ondoren, dinamika bat egin dugu; parte-hartzea sustatzeko asmoz, hiru-lau partaidez osatutako taldeak osatuta. Talde bakoitzari galdera bat eman zaio, eta, ordena jarraituz, talde eta taldekide guztiek aukera izan dute galdera bakoitzari buruz beren ideiak partekatzeko eta solasaldian aritzeko. Galdera hauek egin dira:

1. Zer da zuentzat Itsasondo?
2. Nola sentitzen duzue?
3. Nolako herria dela uste duzue?
4. Zein alderdi on ditu Itsasondok?
5. Hemen zer falta dela uste duzue?
6. Zein hiru hitzen bidez definituko zenuke Itsasondo?

2. SAIOA

GUZTION HERRIA

Galderen bidez hausnarketa pertsonala eta kolektiboa sustatu nahi izan dugu.

Itsasondo guztion herria dela jakinda, hainbat galdera planteatu dira, honen inguruan hausnartzeko: "Nortzuk bizi gara Itsasondon?"; "Nolakoak gara?". Itsasondoko herritarren eskubide eta betebeharrak aztertu dira adin tarteei erreferentzia eginez, haiek beren bizitza prozesuan izan dituzten aldaketaz jabetzeko.

Horretarako, bost talde osatu dituzte, eta bakoitzak adin tarte baten eskubide eta betebeharrak defendatu ditu (haurrak, nerabeak, gazteak, helduak eta adinekoak)*. Egokitutako adin tarteak herrian dituen eskubide eta betebeharrak identifikatu dituzte, gainerako taldeek aurka esateko aukera izan dutelarik. Beti entzuketara aktiboa sustatuz, eta egoera gatazka-tsua saihestuz.

Bukatzeo, eta ondorioak atertzeko asmoz, galdera hau egin da: Zer egin daiteke Itsasondon bizi diren pertsona guztiak herritar sentitzeko?

Horrelako egitasmo bat martxan jartzeak haurrak eta nerabeak subjektu aktibo bezala ulertzeko ideia zabaltzen du. Udalean haur eta nerabeen ahotsak entzun dira, eta protagonista bilakatu dira. Subjektu aktibo izateak esan nahi du zerbitzua haiekin garatu nahi dugula.

Parte-hartze prozesuak lau saio izan ditu: printzipio bat landu da saio bakoitzeko. Saio guztiak dinamikoak izan dira, nerabeen parte hartzea bultzatzeko. 11-15 urte bitarteko hamalau nerabek parte hartu dute, eta saioak emankorrak izan dira. Saioak gidatzen aritu dira Jon eta Anne hezitzaileak eta Nerea gazteria dinamizatzailea.

Saioetan herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharez aritu dira; herriko mapeoa ere egin dute, non ibiltzen diren eta zein txoko egokituko litzuketean azalduz, adin tarte bakoitzak herrian dituen abantailak eta desabantailak ere aztertuz, eta azaldu dute zein gauza dituzten gustuko eta zein ez hain gustuko. Azken saioan, dena borobildu eta konpromisoak hartu dituzte.



3. SAIOA

HERRITIK HERRIATENTZAT

Banaka galdera hauek erantzun dituzte:

- Zein ekintza dituzu gustuko? (indarguneak)
- Zein ez dituzu gustuko? (ahulguneak)
- Zer aldatuko zenuke? (mehatuak)
- Zer egiteko/emateko prest zaude? (aukerak)

Bakoitzak laukietan jarritakoa aipatzen joan gara.

ITSASONDOKO MAPEOA: Itsasondoko mapa lurrian jarri, eta gazteak elkartu edo egon ohi diren lekuak borobildu dituzte margoez. Ondoren legenda bat sortu dugu guztion artean, AMIAn jasotako informazioa (borobilduta espazio horien inguruan gustatzen zaiena, ez zaiena gustatzen, eta abar) azaltzeko: gorria, gustuko ez duguna; horia, aldatuko genukeena; berdea, gustukoa. Beraz, borobildutako espazio bakoitza baloratu dugu koloreetako pegatinak jarri eta zeri dagozkion azalduz. Horrekin lortu nahi izan da herrian erabiltzen dituzten guneen alderdi on eta txarrak bisualki jasotzea.

4. SAIOA

ONDORIOAK ETA KONPROMISOAK

Infografia: Infografia egiteko, hirugarren saioko mapeoa hartu dugu oinarritzat, nerabeek herri-rik jasotzen dutena eta eskaini nahi diotena azpimarratzeko. Ondoren, bigarren saioan "guztion herria" leloarekin landutako eskubide eta betebeharrak aipatu ditugu, landutako kolektibo bakoitzak herrian dituen espazioetatik abiatuta haien egoera azalduz. Lehen saioan landutako "herri identitatea" infografian adierazteko ideien ekaitzen inguruan ere aritu gara.

Konpromisoak: Saioekin amaitzeko nerabeek hartuko dituzten konpromisoen inguruko kontratu modukoa diseinatu dugu, eta guztiok sinatu.

Saioak ondo joan dira, eta, laburbilduz, honako hauek ondorioztatu ditugu:

- Gustura parte hartu dute saioetan, eta, asistentzia gutxitu den arren lehen saiotik azkenekora, parte hartu duten nerabeek oso parte-hartzaileak dira.
- Herri identitatea garatu dute, eta Itsasondoren gauza on asko baloratzen dituzte.
- Belaunaldi ezberdinen arteko harremana ondo baloratzen dute.
- Herriari zenbait hutsune ikusten dizkiete, bereziki azpiegitura aldetik.
- Azpimarratu dute ekintza eta baliabide gutxi dagoela beren adin tarterako.
- Prest azaldu dira konpromisoak hartzeko, herri-rik herriarentzat lan egin nahi dute-lako.
- Udalari (herriari) eskakizun zehatz batzuk helarazi dizkiote:
 - Haietzako ekintzak antolatzea.
 - Gaztelekua txukuntzea eta egokitzea.
 - Gazteleku kanpoan zakarrontziak eta iturri bat jartzea.
 - Miradoreko mahaia konpontzea.
 - Adinekoen parkean beren adinekoentzako gauzak jartzea (slack line, adibidez).
 - Beko kalen farolak/argiteria jartzea.
- Hezitzaileok eskaera horiek bideratuko ditugu udalera.
- Harturiko konpromisoak betetzeko borondatea azaldu dugu guztiok.

Azken saioan hartutako konpromisoak hauek izan dira:

NERABEEN KONPROMISOAK

- Gaztelekuko dinamikan txertatzea, bertan proposatu ahal izateko beren nahiak (ostiralean etortzeko konpromisoa).
- Adin tarte ezberdinekoentzat ekintzak antolatzeko konpromisoak.
- Jai batzordean parte hartzeko borondatea, beren adinerako ekintzak proposatzeko eta antolaketan parte hartzeko.

HEZITZAILEEN KONPROMEZUAK

- Adin tarte horretako eskaerak udalera bideratzea eta lantzea.
- Adin tarte horretarako ekintzak antolatzea
- Beren parte-hartzea sustatzeko guneak edo foroak sortzea. ■



Dani Benitez

Bere ametsa bere jatetxea izatea da baino momentuz bere egunerokoarekin gozaten dabil. Pandemiak kolpatu dituen arren Etxeberria jatetxean gustura sentitzen da.



Zure aurkezpena.

Dani Benitez. Ordizian bizi izan naiz orain arte, eta urte bat daramat Itsasondon bizitzen. 25 urte ditut, eta Zumarragako Hotel Etxeberriko sukaldaria naiz.

Nolatan bizi zara Itsasondon?

Independizatu egin nahi nuen. Gurasoak Ordizian bizi dira, eta Itsasondo beti gustatu zait. Lasaitasuna nahi nuen, nahiko lan estresatua dudalako, eta bizitzeko herri lasaia nahi nuen. Gustuko etxea topatu nuen, eta aurrera!

Zure ibilbide akademikoa.

Gipuzkoako goi mailako ostalaritza eskolan hasi nintzen: Cebanc du izena. Sukaldaritzak arreta deitzen zidan, eta sukaldaritzako erdi mailako ikasketak egitera joan nintzen bertara. Bi urte egin nituen. Gero, beste modulu bat egin nuen, hura ere bi urtekoa, okintzarena eta gozogintzarena. Nire helburua zen txefa izatea, eta nire jatetxea izatea. Sukalde zuzendaria izateko goi maila egin nuen, hortaz, Cebancen bertan. Bestalde, Basque Culinary Centerren bi kurtso intentsibo egin ditut, euskal sukaldaritzaren tekniken ingurukoak. Gozogintzako beste ikastaro bat ere egin dut.

Praktikak Ordiziako Martinezen egin nituen; gozogintzakoak, Unanuen; eta azkenak, berriz, Etxeberrin. Horiek amaitu ondoren, udan banuen konpromisoa Masterchef-en, sukaldeko irakasle bezala, eta ondoren berriro deitu zidaten Etxeberritik, eta bi urte daramatzat bertan. Urretxuko ikastolan ere aritu nintzen, arratsaldeetan 12-14 urtekoei sukaldaritzako ikastaro bat ematen; oso ondo hasi ginen, baina pandemia iritsi zen, eta bertan behera gelditu zen.

Horren aurretik, ohiko ikasketak egingo zenituen, ezta?

Bai, Urdanetan ikasi nuen; gero institutura joan nintzen, eta ondoren egin nuen salto Cebancera.

Nire ametsa nire jatetxea izatea da.**Nire lana oso gustukoa dut.****Rap-a ikarragarri gustatzen zait.****Cebanci buruz entzun dugu zerbait. Ospea duen eskola da, ezta?**

Bai, horrela da. Eskola horretatik atera dira David de Jorge eta Andoni Luis Aduriz bezalako sukaldariak. Irakasle oso onak daude, eta etxean bezala egoten zara, oso babestuta.

Basque Culinary Centerrek ere ospe handia du?

Bai, oso eskola ona da. Jendeak ahalgin handia egin behar izaten du bertara sartzeko. Oso leku gutxi daude, eta mundu osoko ikasleak. Nire gelan, euskaldun bakarra nintzen. Mundu osoko ikasleak zeuden: Estatu Batuak, Mexiko... Esperientzia oso ona izan nuen: ikasleak, irakasle oso onak... Ekipamenduak ikaragarriak dira. Oso sukalde onak eta handiak daude.

Hortaz, nazioartean badu ospea Basque Culinary Centerrek?

Bai, mundu osoan. Euskal sukaldaritzaren punta-puntakoa da. Gainera, unibertsitate titulua duen eskola bakarra da sukaldaritzaren munduan.

Ikasle asko dago bertan?

Bai. Nik intentsiboa egin nuen, eta 20 ikasle ginen, baina, bai, mundu bat dago bertan.

Irakasle ospetsuak aipatu dituzu.

Ni Fernando Barcenarekin egon nintzen Basque Culinary Centerren; 16 urtez Arzakeko sukaldari nagusia izan zen.

Aipatu duzu 17 urterekin sartu zitzaizula bereziki interesa. Aurretik umetan ez zinen ibiltzen?

Tira... Ama beti ikusten nuen, telebistako programak ere gustuko nituen, baina grina gerora hartu nuen.

Azken urtean lan gutxi izango zenuten...

Bai, oso gogorra izan da. ERTEan gaude oraindik langile batzuk. Ireki eta itxi ibili gara. Finko egin berri ninduten Etxeberrin, eta orduantxe iritsi zen pandemia. Ostalaritzak kalte handia jasan du; zorte txarra izan dugu. Urretxun ere bi klase gelditzen zitzaizkidan, gerora luzatzeko aukerarekin, eta azkenean bertan behera gelditu zen.

Etxeberrin sukaldari asko zarete?

Sei gaude. Gutxi eman dezake, ospakizun handiak egiten direlako bertan, ezkontzak eta abar. Baina moldatzen gara.

Masterchef kanpamenduak aipatu dituzu. Nola iritsi zinen bertara?

Cebanceko nire gelakide bati deitu zioten udalekuetako sukaldari zuzendaria izateko. Hark nire curriculuma bidali zuen, eta horrela deitu zidaten.

Orduan ez zenuen eskarmentu handiegirik oraindik, ezta?

Ez. Praktikaldiak eginda nituen Kattalinen, Martinezen ere bai, eta praktikaldiaz gain, egun berezietan deitzen ninduten (azoka bereziak, festak, eguberriak...). Gozogintza munduan, Unanuen aritu nintzen, eta Bodegon Alejandron ere izan nintzen Donostian, Ni Neun ere bai ekitaldi berezietan... Euskal Herriko pintxo txapelketan ere aritu izan naiz, cateringetan...

Jende nahiko gaztea nahiko zuten. 2019an egon zinen Masterchef-eko kanpamenduetan irakasle gisa?

Bai. Sedanon (Burgos) izan ziren: 90 ume ziren, eta hiru irakasle. Nik 30 haur nituen: hamabost goizean eta hamabost arratsaldean. 8-12 urtekoak nituen, mugituenak. Klasea

ematen genuen 10:00etatik 12:00etara; gero atsedena, eta ondoren proba-lehiaketak egiten genituen —adibidez, talde bakoitzak gazpaxtoa eta patata tortilla egin behar zuen—. Gu epaimahaia ginen, eta ondoen egiten zuenak domina jasotzen zuten. Arratsaldean dinamika bera egiten zen: klasea, eta gero, proba.

Animazioak ere egiten zituzten, aisialdia gozatzeko.

Gero udaleku horietako kideak joaten dira telebistako programara?

Ostegunetan programako casting arduraduna etortzen zen, eta haurrak ikusten zituen sukaldean. Lehiatu den jendea ere etortzen zen tarteka, eta udalekuetako haurrentzat oso aberasgarria izaten zen, asko pozten ziren. Bertan dauden haurrentzat, sekulako esperientzia da, programan lehiatzen ibili direnak joaten direlako eta haiekin egoteko aukera dutelako. Orokorrean dirudunen seme-alabak joaten dira, astebeteko egonaldiak 1.000 euro balio baitu.

Masterchef lehiaketak hiru bertsiotitu, ezta?

Bai, hala da: ohiko Masterchef, Masterchef junior, eta jende ospetsuarena.

Sariak onak izaten dira?

Uste dut 100.000 euro direla.

Haurrentzat esanahi handia izango du halako programa batean parte hartzeak eta irabazteak, ezta?

Bai, ospe handia. Diruaz gain, aukera dute Basque Culinary Centerren urtebetez ikasteko, eta hainbat programatarako deitzen diete. Liburu bat ere bai, norbere errezetekin. Oso esperientzia polita izan zen niretzat. Haurrekin ez nuen eskarmenturik, ez dut anai-arrebarik, eta ez nuen harremanik adin horretako haurrekin; oso aberasgarria izan zen, eta ikasketeta prozesu intentsiboa egin nuen. Aukera izan du Bartzelonan tankera horretako udaleku batzuetara joateko, baina, pandemiagatik, ez naiz joan; gainera, Etxeberrin egonda, ezin dut



Basque Culinary Centerren platera osatzen.



Basque Culinary Centerreko taldearekin.

hilabete eta erdi kanpoan pasa.

Orain Etxeberrin zaude. Zein da hurrengo helburua?

Neure jatetxea izatea. Orain ez, nahiko egoera zailean gaudelako, baina etorkizunean hori nahiko nuke. Askok gustatzen zait Tolosako Ama: bertako produktuak, jende gutxiarentzako jatetxea...

Zein da zure erreferentziako sukaldea?

Bertako produktuan oinarritua, garaian garaikoa.

Plater gustukoena?

Olagarroa galiziar erara, edo risottoa.

Arroz zalea naiz. Kike La Costa irakasle izan nuen, eta arrozren erregea da: Denian [Alacant] du jatetxea, hiru izarrekoa.

Menu bat?

Lehenik, onddo risottoa; bigarren, azpizuna edo ate magreta fruitu gorriekin; eta amaitzeko, gazta tarta on bat. Nahiko tradizionala eta sinplea naiz. Etxeberri ere horrelakoa da: betiko sukaldea. Hala ere, erabiltzen ditugu, adibidez, esferikazioak: alginato algaren, kloruro kaltzikoaren eta melokotoi zuku baten eta hautsen arteko erreakzioa da, eta ahoan lehertzen



Etxeberria jatetxeke lankideekin.



Chikoterekin, Etxeberria kanpoan.

den sentsazioa ematen du, arrautza gorringo baten antzekoa. Aparrak ere erabiltzen ditugu: adibidez, erromeroaren infusioa egin, sojaren lezitina bota, irabiagailuan pasa, eta aparra sortzen da. Loreak ere erabiltzen ditugu, apaingarri modura.

Baduzu anekdota edo gertaera bereziren bat kontatzeko?

Behin ekitaldi batera deitu ninduten lanera, Getariara, Balenciaga museora. Joatean sorpresa itzela izan nuen: Martin Berasategirekin eta Pedro Subijanaarekin aritu nintzen lanean eskuz esku. Beste behin, Etxe-

berri lanean nintzela, Alberto Chicote etorri zen: programa bat grabatzen ari zen, txirrindularien elikadurari buruz, eta sorpresa izan zen. Argazki bat atera genuen.

Chicotek badu beste programa bat ere, ezta?

Bai, Pesadilla en la cocina. Jatetxeetara joaten da haiek hobetzeko asmoz, kritikatu eta hobetzeko aholkuak ematera.

Euskal Herriko sukaldaritzak ospe handia du: Michelin izar ugari, telebistan ere saio ugari gure sukaldaritzaz... Hainbeste-

rako da euskal sukaldaritzaz?

Bai, ospe handia dugu. Uste dut Gipuzkoa dela Michelin izar gehien duen probintzietako bat; uste dut Martin Berasategik berak hamar bat dituela.

Michelin izarrek zer dira? Nola ematen dira?

Mundu mailan sukaldaritzari ematen zaizkion errekonozimendu handiena dira. Euskal Herrian asko daude, dentsitate txikian kalitate handia dugu-lako.

Zure etorkizuneko jatetxe horretan izan nahiko duzu, hortaz, Michelin izar bat.

Bai, noski, ikaragarria litzateke, baina oso zaila da. Zure jatetxeak ospe edo izen bat izan behar du gastronomia kritikari bat joateko eta izarra emateko. Errazagoa da Repsol eguzki bat lortzea; Etxeberrik, adibidez, badu bat, orain dela bi urte lortua.

25 urte dituzu, eta gaztea zara oraindik, baina argi dituzu gauzak..

Bai, argi dut hau dela nire mundua, gustuko dudala hau. Nire jatetxea irekitzerik ez badut, gustura arituko nintzateke irakasle ere, Cebancen edo Basque Culinary Centerren, adibidez. Batzuei asko kostatzen zaie zer izan nahi duten erabakitzea: gauza batekin hasi, gero beste bat... Nik hasieratik nuen garbi, eta zortea izan dut alde horretatik.

Gurasoek zer esaten dizute, pozik hartu zuten zure hautua?

Bai, pozik bai, baina hasieran esaten zidaten oso sakrifikatua zela, asteburuetan lan asko egin behar zela, ostalaritza lotua dela... Baina nik argi esan nien hori gustatzen zaidala, nahiz eta hori dena jakin. Astelehenetik ostiralera aritu eta lanera gogorik gabe joatea baino nahiago dut asteburuetan ere aritu pozik.

Zuek, gainera, lanorduez gain, pentsatu beharko dituzue platelek eta abar.

Ez, tira, Etxeberri nahiko finkoak dira. Agian, postreren bat alda deza-kegu... Nik daramadan denboran behintzat ez da asko aldatu.

Ez dizuete aukerarik ematen berrikuntzarako?

Karta ez da asko aldatzen. Niri ez didate galdetu proposamenik dudan edo ez oraingoz; horretarako dago sukaldeko burua, eta hark esaten digu zer eta nola egin behar dugun.

Hemendik aurrera agian...

Egia da azken urtean ez dugula asko lan egin, eta, hortaz, ez da aldaketa handiegirik egon... Orain badirudi hobetzen ari dela egoera, eta ea nola joaten zaigun. Denboraldi zaila izan da: nagusiek zenbakiak egin behar izan dituzte, eta langileok, ERTEan. Gogorra izan da.

Egoera egonkortzen ari den honetan, bueltatuko gara garai bate-tako ospakizunetara... Zerbitzu eman duzu bazkari oso jendetsuren batean?

Bai, Etxeberrin ia astero. Aurrekoan, 150 pertsona izan genituen. Denetik egon zen: zilarrezko ezteiak, urrezkoak, jaunartzeak...

Estres momentuak izango dituzue, hortaz?

Baditugu, bai: puntako bi ordu izaten dira, dena batera atera behar izaten dugu, puntuan eta bero. Aurretik prestatzen da ahal den guztia, baina, hala ere, puntako orduetan badago estresa.

Gustuko duzu estres puntu hori?

Tira, ohitua nago. Lanaren parte da. Egun batzuetan hobeto eramaten da, baina, tira, badakigu zer dagoen...

Hainbeste jenderi dena batera eman behar hori da zailena, ezta?

Ezkontza bat bada, denek gauza berdinak jaten dituztenez, hori errazagoa da. Ehun pertsonako bazkari bat bada kartara, asko zailtzen da, azkenean gauza desberdinak eskatzen dituztelako, eta zailagoa da denei batera gauza desberdinak ematea.

Baina gero eskerra jasotzen duzu, eta horrek asko betetzen zaitu. Zerbitzariak helarazten digute bezeroen eskerra, eta asko poztzen gaitu horrek. Zerbaít txarra bazegoen ere esaten dute, baina kritika guztiak positiboak izaten dira orokorrean, eta eskertzen dira.



Masterchefeko lankideekin.



Udalekuetan.

Sukaldaritzaz gain, baduzu beste zaletasunik?

Natura asko gustatzen zait: mendian ibiltzea, orkatzak eta beste animaliak ikustea, perretxiokoak biltzea... Korrika egitea ere bai. Mendi lasterketak, ez; Behobian parte hartu nuen behin, eta gehiago gustatzen zaizkit estilo horretakoak, hamar kilometro inguruok. Beste kirolik ez dut egiten. Hiru urtez saskibaloian ibili nintzen Ordizian.

Musika aldetik, musika eskolan ibili nintzen bost urtez: gitarra jotzen nuen. Estilo aldetik rapa gustatzen zait. Hemen ez da oso ohikoa, baina gustuko dut. Ordizian bada talde bat.

Rapa gustatzen zaizu, hortaz?

Bai, asko. Kontzertuetara ere joaten naiz: Bilbora, Iruñera, Madrilera... Ea orain berriro heltzen diodan eta joaten naizen jaialdietara. Musika guztia dut gogoko, baina rapa bereziki. ■

Itsasondoko gaztainadiak eta hariztiak hobetzen

Onddo mikorrizikoek funtzio ekologiko garrantzitsua dute: zuhaitzei ura eta lurzoruko substantzia mineralak xurgatzen laguntzea.



Gaztainondoa

Era berean, zuhaitzek onddoari ematen dizkiote fotosintesiaren bidez sortzeko gai diren azukreak. *Sinbiosia* esaten zaio bi organismoek onura jasotzen duten erlazio horri, eta naturan oro har agertzen da. Munduan oso gutxi dira sustraietan onddo onura-garririk ez duten basoak.

Funtzio horri esker, onddo mikorriziko horiek areagotu egiten dute intsektu fitofagoen (izurriak) eta gaixotasun larriak eragiten dituzten beste onddo batzuen (gaztainondoen tinta eta txankroa, adibidez) erasoaren aurkako erresistentzia.

Ezaguna da Itsasondoko mendietan, ingurukoetan bezala, gaztainondoak (*Castanea sativa*) gaixotasunak jota daudela, eta kaltetutako zuhaitzen errekupeazio eta tratamendu prebentiborako inokulazioak egin dira *Pisolithus tinctorius* izeneko onddo espeziearekin; 30 zuhaitzetan, hain zuzen. Onddo mikorriziko hori munduan gehien erabiltzen denetakoa bat da, gaitasuna baitu baldintza txarretan landatutako landareen biziraupena handitzeko. Datozen urteetan egingo zaien jarraipenarekin ikusi ahal izango da zein neurritan errekupeatzen laguntzen dien.

Onddo mikorrizikoen beste ezaugarrietako bat da basa onddoen ekoizpenak hobetzea. Gure artean gehien estimatzen diren basoko onddo jangarriak mikorrizikoak dira: goringoa (*Amanita caesarea*), gibelurdina (*Russula virescens*, *R. cyanoxantha*), onddoak (*Boletus edulis*, *B. reticulatus*, *B. aereus*), ziza horiak (*Cantharellus cibarius*), esnegorria (*Lactarius deliciosus*)...

Eta egoera hori aprobetxatuz, munduan zehar saio ugari egin dira ekoizpena areagotzeko. Ezagunenak boilur edo trufa beltzaren (*Tuber melanosporum*) ekoizpenak dira, Araban eta Nafarroako mediterraneo aldean ikusi daitekeen bezala. Gurean ez da ondo ematen, baina bai antzekoak diren boilur zuriak (*Tuber aestivum* eta *Tuber borchii* bezala). Beste espezieekin ere saioak ugari dira, batez ere onddo zuriarekin.

Aurten Itsasondoko basoetan ere hasi gara proba batzuk egiten, gure kasuan orain 30 urte landatutako haritzak aprobetxatuz, aipatutako bi boilur zuriekin hamabosna zuhaitz inokulatuz, eta beste 50 zuhaitz onddo zuriekin. Hemen ere jarraipenak erakutsiko digu zenbaterainoko arrakasta lortzen den. Emaitzak ikusteko daude, noski, baina jarraipen horiek egiteko udalean apuntatzeko deialdia irekiko dugu behintzat. ■



inokulatzeko

Xabi Aztita

*Maitasunak ekarri du Itsasondora.
Bere jaioterri den Leitzatik,
gauza batzuk faltan dituen arren,
eroso sentitu da Itsasondon,
lehen momentutik.*



Noiz etorri zinen Itsasondora?

Aurten etorri naiz, martxo aldera.

Non bizi zinen lehen?

Leitzan.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora bizitzera etortzea?

Nire bikotekidea bertakoa delako.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Urduri nengoen, baina, aldi berean, ilusioz.

Zein lanbide daukazu?

Papeleran egiten dut lan.

Leitzako zeren falta sumatzen duzu?

Bertako lagunak, familia, giroa... Herri bizia da, eta ia dena bertan egiten nuen.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen? Eta zer da gustatzen zaizuna?

Zerbitzu batzuk faltan bota ditut, eta esango nuke ez nagoela ohituta trenaren soinura [barrez].

Gustatzen zait herri txikia dela eta bertan dagoen giroa... lehenengo momentutik eroso sentitu naiz.

Zein zaletasun dituzu?

Lagunekin egotea, parranda, kirola noizbehinka.

Janari bat?

Txuleta.

Edari bat?

Ardo beltza.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat?

Txindoki.

Amets bat?

Askatasuna.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Opari bakoitzak du bere berezitasuna... ez nuke jakingo aukeratzen.

Zeri diozu beldur?

Maite dudan norbait galtzeari.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Edozerk, ez da zaila niri irribarrea ateratzea.

Itsasondon biziko ez bazina...?

Ez dakit, momentuan ikusiko nuke. ■

Hainbat hilabetez itxita egon ostean, amaitu dira parke berriko lehen zatiko obrak. Hurrengo urtean amaituko dira lanak, falta den eremua eraberrituta. Parkea eraiki aurretik, haurrekin lanketa bat egin da, parkearen diseinua eta jolasteko elementuak eurekin batera adosteko.

Zabalik da jolas eremu berria



Uztailaren 7an ireki zen ofizialki Itsasondoko parke berria, ekitaldi xume batekin. Nagore Etxeberria udal ordezkariak parkeko lanen inguruko azalpenak eman ostean, lau haurrek moztu zuten irekiera irudikatzen zuen zinta gorria.

Hainbat eta hainbat hilabetez itxita egon ostean, iritsi zen azkenean parkeko ateak zabaltzeko egun handia. Denboratxo luze batean irrikaz zain egon dira herritarrek, baina azkenean iritsi da eguna: amaitu da parkea eraberritzeko lehen fasea. Aldi berean, komun publikoak ere berritu eta egokitu nahi izan dira, eta horregatik luzatu dira hainbeste parkeko lanak.

2019an, kolonpioaren habea hautsi egin zen, eta kolonpioak kentzea erabaki zen, ezbeharririk gerta ez zedin. Dena bota eta parke berri bat eraikitzea erabakitzen.

Lehendik zegoen parkeak bazituen urte batzuk; 2003an eraiki zen. Eta, beraz, haurrei jolas eremu berria eta osatua eskaintzea pentsatu zen.

Udal taldeak argi zuen bestelako parke bat nahi zuela herrirako: natur elementuek garrantzia izango zuten parkea, jolas librea eta irudimena askatzen lagunduko zuen parkea... Eta halaxe Azpeitiko Kimubat enpresarekin jarri ziren harremanetan.

Haurren hitza entzutea premiazkoa

Ezinbesteko ikusten zen parkearen eraikuntza prozesu horretan haurrek beren alea jartzea. Hala bada, haurrekin parte hartze prozesu bat egitea erabaki zen. Prozesu hori dinamizatzeke Laia kooperatibaren laguntza izan zuten.

6 eta 11 urte bitarteko bederatzi haurrek parte hartu

zuten parte-hartze prozesu horretan. Orotara, bost saio egin ziren haurrekin, azarotik abendura bitartean. Egungo parkeak zituen hutsuneak edo alde txarrak eta onak zerrendatzea eta gaztetxoek nahiak jasotzea izan zen lehen saioen asmoa. Hurrengo saioetan, parkea kokatuko zen espazioa aztertzen eta neurtzen aritu ziren, beren gogoko jolas elementuak maketa batean kokatu aurretik. Azken-aurreko saioan, beren ametsetako parkea erakutsi zieten Beñat Mendiburu udaleko arkitektoari, Iker Goikoetxea Kimubat enpresako arduradunari eta Nagore Etxeberria udaleko arduradunari. Eta azken saioan, arkitektoaren zein Kimu bat enpresako arduradunaren azalpenak eta argibideak jaso zituzten haurrek: argitu zieten eurek eskatutako zer egin zitekeen eta zer ez.

Haurren ideiak jaso ostean, parke berriaren marrazkia erakutsi zien Goikoetxeak, Kimubat enpresako arduradunak. Haurrek, besteak beste, eskatu zuten ura, hondarra, eskalatzeko pareta, ezkutatzeko etxetxoak edo lekuak, esertzeko lekuak eta bestelakoak izatea, eta elementu horiekin osatutako parkea eraiki du Kimubat enpresak.

Orain zabaldu berri dena, baina, parkearen zati bat baino ez da, asmoa baita jolas parkeak erreka ondoan dagoen eremuaren azalera osoa hartzea. Ondo bidean, beraz, hurrengo urtean, jolas elementu berriak jarriko dira, eraiki gabe geratu den beste zatian. Eta orduan, jolas eremu erabat berritua eta osatua izango du herriak.

Parkea txukun mantentzea herritar guztien ardura da. Beraz, senti dezala herritar bakoitzak parkea berea balitz bezala, eta halaxe zaindu dezala, eta errespetatu ditzala arauak. ■

Egiteko aukera zegoena egingo genuela azpimarratu genuen aurreko alean ere, osasun egoerak eskatzen dituen neurriak betez, noski, hilabete hauetan ekimen ugari izan ditugu herrian. Hona hemen hauen kronika.

Udalekuak

30 haur eta sei begirale (hiru ikasle praktiktetan) izan dira aurtengo udalekuetako partaideak. Aurtun, lehen aldiz, enpresa edo elkarteak kontratatu beharrean udalak kontratazio zuzena egitea erabaki du, eta hezitzaileen hautaketa prozesuan parte hartu zuten Jon eta Anne izan dira lanean egon diren begiraleetako bi. Ezustekorik gabe, eguraldi ona zein txar, programaturik zituzten ekintzak egiteko aukera izan da. Jokoak, eskulanak, ikus-entzunezkoak, mo-zorroak, ur egunak eta abar egin dituzte hilabetean. Hurrengo urtean errepikatzekoak! ■



Konpostaguneetan azalpenak

Konpostaguneak egoki erabiltzeko helburuarekin, udalak hitzordu ezberdinak antolatu zituen herri-tarrak informatzeko. Auzo guztietan elkartu ziren herri-tarrak eta gomendio eta aholkuak jaso zituzten. ■



Teknologia berriei buruzko hitzaldia

Guraso elkarteak antolaturik, Sare sozialak eta teknologia berriak formakuntza saioa izan zen. Bederatzi familiak parte hartu zuten. Aplikazio ezagunenez gain, egun Gipuzkoan gehien erabiltzen diren aplikazio berriak ezagutu genituen. Interes handiko saioa izan zen. ■



Kirol astea

Aurten ere, kirol munduari keinu bat egin nahian, kirol astea antolatu zen. Inguruko herrietan eta gurean kutsatu kopuruak gorakada handia izan zue-
nez, pare bat ekintza bertan behera gelditu ziren. Al-
pinismoa Goierriko bihotzean hitzaldia egiteko aukera
izan genuen. Sei lagun bildu ziren. Kopuru aldetik
asko ez badira ere, parte-hartze ona izan zen, eta
gustu handiz izan ginen Xabi Smithyrek in berri-
ketan. ■



Liburuaren Eguna

Irakurketa sustatzeko asmoz, eta bide batez Libu-
ruaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, ipuin konta-
keta saioa antolatu genuen eskolan. Betzaida Urtaza
izan genuen eskolan, eta hiru taldetan egin ziren
saioak, burbuilak mantenduz. Haurrak pozik ziren en-
tzundako istorioekin. ■



Maite Franko: berdintasun ipuinak

Martxorako aurreikusiak genituen Maiteren ber-
dintasun ipuinak, baina atzeratzea erabaki zen,
osasun egoeratik. Maiatzean izan genuen gurean,
eta istorio dibertigarri ugari ekarri zituen. Aretoa bete
egin zen, eta ederki pasatu zuten hurrek eta helduek.
Amaiera aldera txikiak nekatu baziren ere, abestie-
kin giro alaietan amaitu zuten. ■



Iker Pirisen kontzertua

Musika falta genuela ondorioztatu zen kultur agenda osatzeko bidalitako galdetegian, eta musika zikloa antolatu da urtean zehar. Iker Piris hirukoa izan genuen frontoian, giro ederra jarriz. 27 lagun egon ziren emanaldia ikusten. ■



Inokulazioa enborretan

Perretxikoen lanketan badu eskarmentua Itsasondoko Udalak. Aurten, eskolako haurren laguntzarekin, inokulazioak egin dituzte parkeko enborretan. Haurrak oso parte-hartzaile egon ziren, eta ekintza oso ondo joan zen. ■



Musika eskolako emanaldia

Urte osoko lanak eman zuen fruitua. Herriko neska-mutilak izan genituen beren instrumentu eta ahotsekin gu liluratzen. Bejondeizula guztioi, sekulako emanaldia egin zenuten eta. Bertan zeuden 43 ikusleek, senide eta lagunek, asko gozatu zuten saioaz. Segi horrela! ■



Bertso-saioa

Aspaldi ez zen Itsasondon bertso saiorik izaten. Ane Labaka, Jon Maia, Alaia Martin eta Xabier Silveira ekarri genituen. Mikel Mendizabal herritarra izan genuen gai jartzaile. Saio jendetsua izan zen: 77 lagun elkartu ginen frontoian. Saioaren balorazioa bete zuten herritarrek adierazi zuten laburra izan zela. Jendea gustura egon zen arren, faltan nabaritu ziren oraingo gaiak eta giro pixka bat gehiago. ■



Saguzar gaua

Animalia bitxi horiek gertutik ezagutzeko, saguzar gaua antolatu genuen. 21:00etan plazan elkartu ziren izena emandako 48 pertsonak. Taldekatzeak egin baldin baziren ere, azalpen paneletan haurrak elkarrekin jarri ziren lurtean azalpenak entzuten. 22:00 aldera zubira gerturatu ziren, eta bertan saguzarrak ikusteko aukera izan zuten entzungailuekin eta. Bertaratutakoak oso gustura geratu ziren, eta horrela azaldu zuten balorazio galdetegian. Errepikatzeko ekintza.■



Buruarin tailerra

Buruarinak izan nahi genituen herriko haurrek horiekin jolastu ahal izateko. Horretarako tailerra antolatu genuen. 30 lagunek parte hartu zuten: lanak antolatu ginen frontoian, eta bederatzi buruarin egin ziren. Artistak!■



Esnatu naiz kabareta

LGTBI+ kolektiboaren nazioarteko eguna dela eta, Itsasondon ere egin nahi izan genuen aldarrikapena. Ekainaren 25ean, ostiralarekin, emanaldia izan genuen eskolako arkupean. 25 lagun izan ginen, eta asko gozatu genuen emanaldiaz. Kolektibo horretako kideek pairatzen dutena gertuagotik ikusi eta haien azalean bezala sentiarazteko aukera izan genuen Andoni Mutiloarekin.■



Liburutegi txokoa

Atal honetan liburutegiko azken berriak azaltzeaz gain, liburu baten gomendioa egingo dizuegu. Bada-kizue aldizkariaren helburua herritarron parte-hartzea sustatzea ere badela, beraz, aholkatzeko moduko li-brururik bururatsen bazaizue, bidali proposamena: **itsasondo2.0@itsasondo.eus** helbidera.

Azken liburu berrikuntza hauek izan ditugu liburu-tegian (Nobedadeak apalean aurkituko dituzue).

liburu gomendioa



TURISTA KLASEA

Kattalin Miner

SUSA, 2020

Esnatu, gosaldu, jantzi, motxila, paketea eta NANA hartu, Hendaia-ra joan, Pariserako trenari itxaron. Bali-teke gaurkoa izatea azken bisita. Eta oraindik ez zaizkio natural ateratzen talegoa bezalako hitzak. Batzuetan fri-bolo samarrak iruditzen zaizkio haien arteko elkarriket-tak, ez dutelako politikaz hitz egiten, baizik eta pelikulez, liburuez, ametsez. Barre egiten dute, elkar babesten dute.

Uzkiari buruzko tailer batean ezagututako lagun txile-tar batzuen etxean geratu zen lehenengo bisitan. Geroztik, ardo botilak hustu zituzten, "lagun" esan zioten elkarri, bizi zituzten biolentziak konpartitu. Baina haiei ez zien kontatu muga gurutzatuta trenak hartzean sen-titzen zuen izua, Charlie Hebdo-ren kontrako atentatua gertatu zenetik.

Adiskidetasuna, elkartasuna, norberarengandik erauzi ezin ditugun beldurrak. Kattalin Minerren bigarren nobe-lan. ■



Aitaren Etxea

Karmele Jaio




Los privilegios del ángel

Dolores Redondo



El juego del alma

Javier Castillo



El largo sueño de tu nombre

Amaia Oloriz



Festa

Jaione Osoro



Hormak

Oihana Iguaran



La madre de Frankenstein

Almudena Grandes



Mujeres del alma mia

Isabel Allende



Nolakoa da zure garuna

Mia Nilsson





(errezeta)

Arroz saldatsua txirlekin

4 pertsonentzat:

- 500 gr inguruko 2 abakando
- 300 gr txirla
- 2 tipula ertain
- 2 baratxuri
- Porrua 1/2
- 150 gr tomate saltsa
- 2 litro arrain fumeta
- Litro erdi ardo zuri
- Piper berde 1
- Piper gorriaren 1/2
- Kopa bat koñak
- 360-400 gr arroz

Olio pixka bat duen kazola batean, aurrez erditik zaitutu-
tako abakandoak pasatuko ditugu. Zigilatu ondoren, pi-
tzatu egingo ditugu, eta pintzak apurtu. Kazola berean,
tipula (dadotan), piperra eta porrua frijituko ditugu.

Frijitu ondoren, ardo zuria gehituko dugu, eta, behin
ardoa murriztuta, tomatea eta koñaka. Arroza jarriko
diogu, eta kolorea hartuko du. Ondoren, fumeta gehituko
diogu. Arroza irakiten hasten denean, abakandoak gehi-
tuko ditugu, eta arroza egosten amaitu baino lehen, txir-
lak gehitu. On egin! ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten di-
tugun zenbait erdarakada. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Pena merezi du lanean saiatzea.	Merezi du lanean saiatzea.
Zurekin konparatuta gaztea da.	Zure aldean gaztea da.
Lanean hasteko gogoak dauzkatz.	Lanean hasteko gogoak daukat.

Euskararen aurkako erasoak

Ekainaren 26 eta 27ko *ez-jaietan* euskaraz hitz egiteagatik
hainbat lagunek jasandako erasoak salatu dituzte Donibane
Lohizunen (Lapurdi), elkarretaratze jendetsu batean. Ziburuko
gaztetxeak antolatuta du protesta, eta euskaraz bizitzeko esku-
bidea aldarrikatu dute.

Jean Louis Irtzoki donibandarrak asteburuan jasotako ji-
pioiaren harira zabaldu dute protestarako deia. Jaietatik etxera
bidean zihoala, anaiaren bizilekuaren parean gelditu zen Irt-
zoki, eta balkoian zegoen ilobarekin euskaraz hitz egiten hasi
zen. Kanean zeuden hiru gizonezkoak entzun egin zuten, eta
Frantzia zeudela-eta, zein dialekto erabiltzen zebilen galdegin
zioten Irtzokiri. Hark euskaraz erantzun zien, eta gizonek kolpa-
tu egin zuten, eta hankan zauritu. Gaua ospitalean igaro zuen
donibandarrak.

Asteburu berean, euskararen aurkako beste hainbat eraso
ere izan ziren; adibidez, bi emakume euskaraz hitz egiteagatik
jasan behar izan zituztenak eta eskal musika jartzeagatik Kaia
tabernako Jon Garmendiak pairatu zuena.

Elkarretaratzea babestu zuten Euskal Konfederazioak, EAJK
eta EH Baik.

Pragako gida turistikoa euskaraz

Argitaratu berria da Pragako Gida laburra, Europako hiri turis-
tikoaren artean euskarazko bakarrenetakoa, edo bakarra, agian.

Pragako Gida laburra V Ráji argitaletxearen ekimenez kale-
ratu dute. Lehendik hainbat hizkuntzatan zegoen, eta oso eza-
guna zen Pragan egon den edonorentzat. Hortaz, orain
eskuragarri dugu euskarazko edizioa, eta laster batean katala-
nez ere argitaratuko da.

Euskarazko bertsioa osatzeko, Violeta Uribe itzultzaile eta
interpretariaren laguntza izan du V Ráji argitaletxeak; euskal
jatorria du Uribek, Pragan bizi da, eta hark egin zuen gaztela-
niako bertsioa ere. Kemen handiko emakume horrek harreman
estua du gurasoen sorlekuarekin, gerraostean atzerrian jaio
arren oso sarritan egoten delako gure artean. Gida xume honen
helburua da turistei informazio arina eta erraza eskaintzea,
esku artean erabiltzeko delako, azken batean. Horregatik, es-
kertzekoa da Europako hiri turistiko garrantzitsuenetan euskara
aintzat hartzen hastea.

Oharrak



AISIALDIKO BEGIRALEA IZAN NAHI DUZU?

Itsasondoko udalak finantziaturik, orain duzu aukera. Informazio gehiago: www.itsasondo.eus edo gazteria-kultura@itsasondo.eus

Kultur Agenda

IRAILA

- 1 Jai batzordea (17:30) kulturgunean.
 - 6 Lurralde batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
 - 8 Memoria tailerra (17:30-10:30) jubilatuetan.
 - 9 Ongizate batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
 - 11 Natur ekintza.
 - 25 Ekirock aurkezpena (egunean zehar) frontoian.
 - 30 Bingoa (17:00) jubilatuta elkartean.
- * Udazkeneko kultur ekintzak (zehaztuko da programazioa).*

URRIA

- 1 Webgune berriaren inaugurazioa kulturgunean.
- 5, 19 eta 26 Adinekoen soinketa (16:00)
Tipi- tapa (17:00)
- 6 Memoria tailerra (17:30) jubilatuetan
- 11 Lurralde batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
- 13 Herri bizitza batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
- 14 Ongizate batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
- 16 Hip hip urri! Ekintza.
- 21 Odol emaileak (18:00) kulturgunean
- 28 Bingoa (17:00) jubilatuetan

AZAROA

- 2, 9, 16, 23 eta 30 Adinekoen soinketa (16:00)
Tipi- tapa (17:00)
- 3 Memoria tailerra (17:30) jubilatuetan.
- 8 Lurralde batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
- 10 Herri bizitza batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
- 11 Ongizate batzordea (19:00) udaletxeko bilera gelan.
- 20 Baños de Bosque (natur ekintza)
- 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko eguna, elkarretaratzea.
- 25 Bingoa (17:00) jubilatuetan

ABENDUA

- 1 Memoria tailerra (17:30) jubilatuetan.
- 4 Natur ekintza.
- 3 Euskararen Eguna
- 14 eta 21 Adinekoen soinketa (16:00)
Tipi- tapa (17:00)
- 24 Olentzero eta Mari Domingi



COVID-19a dela eta, baliteke ekintza horietako batzuk ezin egitea. Webgunean eta pantailetan emango da horren berri.

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((49 zk)) Abuztua 2021

Ale honetan parte hartu dutenak:

Asier Arbilla
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Eskolako irakasleak
Haurreskolako hezitzaileak
Garikoitz Goikoetxea (UEMA)
Guraso Elkartea
Iñaki Aizpuru
Leire Irastorza
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
URTARRILAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN

